

EUSKAL PONTIZEN ZAHAR BATZUK AZTARRIKATUZ

Donostia, 1984-X-26

Yon Etxaide-Itharte

Gure baratza eder bezain gutxi ezagutuan gorderik dauden zenbait euskal pontizen zahar aztertzea da iskribu honen asmoa. Saio honetan bildu eta komentatuko ditugun izenak honakook dira: 1. Kontsonantean amaitutako erdal-izenaren bukaeran -erdararatatik hartutako pontizenez bakarrik ari bai-kara hemen— “-a” edo “-e” bokala hartzen dutenak. 2. Frantsez pontizenen azken “-e”, “-a” bihurtzen dutenak. 3. Erdal-izena kontsonantean hasten delarik, berau galtzen dutenak. 4. Erdal izenaren kontsonante bat “tx” bihurtzen dutenak, txipigarritasuna, adiskidegoa edo amultsutasuna aditzera eman nahian (1). Hás gaitezen, bada:

ABRAHAME (Abraham/Abrahan): Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 14 p.).

ADAME (Adam/Adan): Bernat Larregi, Testamentu zaharreko eta berriko historioa, 18, 19, 20 eta abar paiaik.

ALFONSA (frantses *Alphonse*-etik): Nafarroa Beherean eta agian Zuberoan eta Lapurdin erabiltzen da edo erabili izan da bederen. Gogoradezagun Seigarren Merindadeko Lopez-en itzulpen-obra ernegarriak daraman izenburua: “*Alphonsa Rodriguez Jesusen Konpañhako Aitaren Girishinho perfekzionalearen praktikaren parte bat Heuzkarala itzulia*”, Aviñon-en inprimatua 1782-gn. urtean (2).

(1) Badira pontizen batzuk “-txa” atzizikia hartzen dutenak, baina badirudi “-txo/-txu” atzizki txipigilearen aldakuntza bat besterik ez dela. Esaterako: Lopetxa Obako eta Perutxa Gaberia (1358), Iruñean. Agian, Martixa (gaur deitura bihurturik: Martija) beste aldakuntza bat da. Beraz, izenok, Lopetxo, Perutxo eta Martintxo bezala izanen lirateke (Alfonso Irigoyen: “Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca”, “Euskera” XXII, 1977, 592 p., uztail-abendua). Seinalagarri da pertsona berberekin Lope eta Peru izena hartzen dutela dokumentu batean eta Lopetxa eta Perutxa beste batean.

(2) Mitxelenak (“Sobre -a en nombres vascos de persona”, “Euskera” IV, 1959, 5 p.), -a euskal-atzizkia (frantsesetik hartutako pontizenetan), frantses -e mutuaren ordezko bezala jotzen du, baina, dioenez, -e hori ez da beti mutua izan. Bestalde, dio -a euskal-atzizkia ez omen da batere zaharra (nada antiguo). Beraz, jakin beharra litzateke, euskaldunak noiz hasi ziren -a erabiltzen, alegia, frantses -e mututu baino lehenago ala geroago, hots, letra aldatzea ala osat-

ANDERE (Ander/Andrés?): Izen honi buruz honela diot neronek R. S. B. A. P. deritzanaren Boletinean (Cuadernos 3.^º y 4.^º, 1975, “Khantoren khantatzeko” irazlanean, 421 paian): “Referente a ‘Andere’, sabemos que todavía los pescadores bermeanos llaman a Santander ‘San Andere’, como lo atestigua el P. Imanol Berriatua: “Aolan deituten deutsoe Bermeotarrak Montañako uri nagusiari” (3).

Por otra parte tenemos el testimonio, muy valioso en este caso, de Cefrino Jemein, haciendo referencia a un islote frente a Sukarrieta (Pedernales). Dice Jemein en su “Biografía de Arana-Goiri”³tar Sabin e Historia Gráfica del Nacionalismo Vasco”, Bilbao, 1935, p. 265: “Seguía Sabin pasando temporadas en Sukarrieta, y con el fin de fijar allí su residencia, compró, junto a la ermita de San Antonio, los terrenos pertenecientes al caserío “Albina”, propiedad de José María de Atxikallende, además de otros, como la isla de Deun Ander, conocida vulgarmente por Doniandere”. O sea, que el Sr. Jemein, que se toma la libertad de bautizar al mencionado islote con el nombre sabiniano de Deun Ander, reconoce que el auténtico nombre euskérico es DONIAN-DERE, es decir, Done Andere (San Andrés)”.

Bestalde, Balentín Aurre Apraiz (Aurraitz) olerkariak esaten zidan inguruokoek *Santi Andere* esaten diotela orain.

Hemen esanak irakurri ondoren, badirudi “Andere”k eta ondorenez “Ander”ek, “Andrés” behar duela izan, zalantzak gabe. Baino, Santanderko historiak besterik esaten digu. Dionisio Ridruejo-k “Castilla Vieja-1” liburuaren, 69-gn. paian honela dio: “..., una comunidad religiosa huida de la invasión sarracena obtuvo el privilegio de uno de los primeros Alfonso asturianos, aún en el siglo VIII, para edificar aquí, donde ahora se alza la Catedral, un monasterio que andando el tiempo se transformó en abadía. En su iglesia recibieron culto las reliquias de dos mártires sacados de Calahorra: San Emeterio y San Celedonio. Del nombre del primero se dedujo el de Santander”. Latinez Emeterio *Hemetherius* da eta Andrés *Andréas*. Badirudi “Ander” errezagorik deriba daitekeela *Andréas*-tik *Hemetherius*-tik baino. *Emeter* beharko luke izan *Ander*-en sorterroa, baina eratorpen zaila eta gogorra dirudi benetan. Deribazio hau samurtzeko Santander-ek lehenago eduki bide zuen forma osoago bat ezagutu beharko genuke.

J. M. Lakarrak (Vasconia Medieval, 46 p.) “Garcia don *Andere*” ematen digu Artaitzonan (Artaxona), XI-XII mendetakoan.

zea egin zuten, zeren, *Alphonse* hartu beharrean oinarritzat *Alphons* hartu baldin bazuten, letra osatzen baita —Jesusa (Jesus-a) izenean bezala—, eta ez aldatzen; eta jakina, orduan, frantsesetik hartutako izenok erregela honetan sartzen dira, hots, goian eman dugun lehenbizikoan. Honetaz, lau kasoak hirutara bihurtuko lirateke.

(3) Véase: “Euskar idazleen Lorategia” de Etxenagusia, 1965, pp. 85/86, o también, “Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco”, Literatura IV, pp. 249/250).

Aita Onaindiak —Aita B. Ataun-i jasorik— (Euskal Literatura-V, 397 p.) *Santindere* aldakera ematen du Sukarrietako *Santi Andere*-ren ordez. Esan daiteke, beraz, Santindere eta Santandere edo San Andere gauza berbera direla.

ANTSA: Sancha. *Ansa* deitura hedatua da gure artean. “*Ansa*”, Gaztelu-ko baserria (G). Luis Eleizalde: Listas alfábéticas de voces topónomasticas vascas, RIEV-XIII, 1922, 422 p.

ANTSO: Sancho. “*Anso Saonch*, que en castellano quiere decir Sancho Saez” (Mitxelena: “Apellidos vascos”, 3-gn, ediz, 49 p.). “*Anso, Joane, Onsalu*” (Mitxelena Textos Arcaicos Vascos, Minotauro, 160 p.). “*Anso Gaskueko, Anso Olakarizketako*” (Mitxelena: T. A. V., 35 p. “*Anso Garziak gastelu ori emun ez*” (Mitx. T. A. V. 97 p.). “*Iaun Anso Mikeleiz*” (Uterga 1221; J. M. Lakarra: Vasconia Medieval, 49 p. “*Anso Iturriko*” (Iriberry 1246: Lakarra, Vasc. Med., 38 p.). “*Iaun Anso Ortiz*” (Larraga, XIII mendea; Lak. Vasc. Med., 49 p.). Eleizalde, Listas Alfábéticas, RIEV-XIII, 1922, 422 p.: Ansaga (antso-agá), Elgetako soroa; Ansaran (antso-aran), Irungo baserria; Ansoetxe, Oñatiako baserria; Ansola, Elgoibarko baserria; Ansolope, Arabako Gazteluko tokia: Ansomendi, Mutrikuko baserria; Ansondo, Debako baserria; Ansorena, Astrain-go (N) etxea; Ansotegi, Donostiako baserria; Ansouri, Luyoko deitura (B); Ansune, Donostiako baserria. Deiturak: Antsorena, Antsola, Antsotegi, Antsoain, Antsoalde, Antsorregi (Antso-torre-egi?) eta abar.

ANTSOA (el Sancho): Antsoategi, Elgetako bi baserriren izena (Eleizalde, Listas Alfábéticas, RIEV, 1922, 422 p.). Deitura: Ansuategi.

ANTSOKO (Sanchito): Ansokorena, Oroz-Beteluko etxea (N). (Benito Urtasun: Toponimia de Oroz-Betelu, Fontes Linguae Vasconum, 1971, 9 lum., 336 p.).

ANTXA (Sancha): *Maria Antxa*, 1366, Burgi, Erronkari ibarra; Alfonso Irigoyen: Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca, Euskeria XXII, 1977, 582 p.

ANTXI: Markina-Etxebarriko toponimoa (A. Irigoyen, “Zeruko Argia”: “Yon Etxaideri erantzuna”, Maiatza 6, 1979, 828 lum.). Francisco ote? (Ikus Antxiko).

ANTXIA: deitura ezaguna. El Francisco ote? (Ikus Antxiko).

ANTXIKO (Francisco): Azkueren hiztegian agertzen da “liro” (triste) hitzean. Erronkariko Bidangozen jaso zuen: “Begiak liro zazkan atzo Peio-k, argi Antxiko-k” (Pedro tenia ayer tristes los ojos, Francisco alegres). Itzulpena ere Azkuerena da. Zorigaitzez ez du esaten nori jaso zion. “Particularidades del dialecto Roncalés” liburuaren ere jartzen du adigarri hau Azkuek, “Vocabulario” deritzanean, 200-gn. paian, “triste” hitzean. “Antxiko”: Untzillar-Aramaioko baserria (Eleizalde: Listas Alfábéticas de voces topónomasticas vascas, RIEV-XIII, 1922, 422 p.). “Antxikorena” (Antxiko-rena) etxondoa

Nafarroako Oroz-Betelu zegoen (gaur deuseztua). Ikus: Toponimia de Oroz-Betelu, "Fontes Linguae Vasconum", 1971, 9 lum., 335 p. Egilea: Benito Urtasun. Etxondo onetatik sortutako deiturarik ez ote? Badaiteke, baina Nafarroako telefonuko zerrenda-liburuan ez dut aurkitu ahal izan Antxikorena bat bakarrik. Honek ez du esan gura, ordea, patronimiko zoragarri honek deiturarik formatu ez duenik. Horrelakorik segurtatu baino lehen, Nafarroako egunkarien eskeletan, aluntziotan eta albisteetan azterketa sakon bat egin behar da, hala nola jaiotza eta heriotza agirian edo beste dokumentutan. Gogoan har, Antso-k lehenbiziko kontsonantea ("S") galtzen duen bezala, Antxikok bi kontsonantea ("FR") galtzen dituela.

ANTXO (Sancho): *Antxo Luzea*, Nafarroan, 1358 (Alfonso Irigoyen: Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca, 573 paia, Euskerria, 1977). Pasai-Antxo ere hemendik etor daiteke. Aditzea dudanez, Pasaiako auzo honen izena "Antxo" izeneko baserri batetik omen dator.

ANTXOA (el Sancho): *Antxoarena* deitura ezaguna da.

ANTXOKA: Alfonso Irigoyenek dakar aipatu lanean. Gaur deitura da. Antxo-tik ote dator?

ARISTO (Calixto?): *Aristorena*, nafar deitura.

ARITZE/HARITZE (Félix): "Donna Haritçe, dona felitze. S. Felix", Sylvain Povreau: *Les petites oeuvres basques*, 9 p., J. Vinson (Hordago).

BALERIANA (Valerien/Valeriano): "Makrienek amoratu zuen Baleriana. Enperadore hunek kondemnatu zituen heriotzerat aphezpiku, aphez eta diakre guziak". (Bernat Larregi, *Testamen zaharreko eta berriko historioa*, II Tomoa, 342 p.)

BASILA (Basile/Basilio): Etxahunen bertso batean (Khantoren khantatzeko, VII-gn. ahapaldia) ageri zaigu: "Basilia Olibero, entzün dit batzarre/zük badüzüla bospasei amore".

BATITA/BATTITTA/BATISTA (Baptiste/Bautista): Zuberoan erabilten diren aldakerak, Peillenek aditzera ematen didanez.

BAZKOARE (Pascual): Bazkoareiz = Pascualiz (Mitxelena: *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, 36 p.).

BEELZEBUBA (Belzébuth/Belcebú): "Erradak Beelzebuba/zer dabilan heben gaintik" (Junes Casenave Harigile, Ibañeta pastorala, 25 p., Jakin, 1978).

BENEDITUA (Benitua): ¿el Benedicto? Gaur deitura bezala ageri zaigu (Mitxelena: *Apellidos Vascos*, 153 p. 3-gn. ediz.).

BERONIKEA (la Verónica). "Izerdi, auts, odol beterik/Begi, ta aurpegi eukazan, / Beronikeak garbi ezkero / Izaraxoan geldi zan (Añibarro, Esku Liburua, 191 p.).

DOMINIKA (Dominique/Domingo): Zuberoako izena. Jatorragoak dira noski eskualde hartan Domenixe eta gurean Domiku. “San Dominika”: “Spainian sorthu zen San Dominika” (Bernat Larregi, Testamen zaharreko eta berriko historioa, II Tom., 387 p.).

EDRIGU (Rodrigo): *Edrigu de Villandran*, egun eben eta biar an (Garibay, Cc 79 LIV. RIEV, XXVII tomoa, 615 p.).

ELISEA (Elysée/Eliseo): *Elisea* profetak (Joannes Etxeberri Ziburukoa, Manual Devotionezcoa, bigarren liburua, 59 p.). *Eliseak* ikusi zuen. *Eliseak* iragan zuen. (Bernat Larregi, Testamentu zaharreko eta berriko historioa, I, 366 p. eta beste).

ELIZ (Félix) “Hau da orroitzapena Hitur Elizena”: He aquí el recuerdo de Hitur Félix (Emeterio Sorazu, Antropología y religión, 242 p.).

ELIZABETE (Elisabeth/Isabel): “Andre-dona Elizabete Portugaleko”, Zuberoako pastoral baten izena (“Kaniko eta Belxitina”, 15 p.).

ERIZ (Felix?): Eriz Akutiz, Eriz Azeariz (1068), Sancio Eriziz (1027) (Mitxelena: Apellidos Vascos, 85 p.).

ERMIN (Fermin? Herminio?): *Erminea*, Izabako etxea. Ermin-enea?

ERNANDO (Fernando) Deiturak: Ernandorena, Ernandosoro, Ernandotegi.

ERRANDO (Fernando): Errando-haundi eta -txiki, Donostiako base-riak; Errandoena-etxebarri, Elgezabala-Mungiako baseria; Errandosoro-etxe eta -bentatxo, Tolosako baserriak; (Luis Eleizalde: Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas, RIEV-XIX, 1928, 77 p.). Errandonea (Errando-enea), nafar deitura.

ERRANDOA (el Fernando): Errandoa, Argiñarizko tokizena (N) (L. Elizalde, Listas alfabéticas, RIEV-XIX, 1928, 77 p.).

ESTEBE (Esteban): Trazak badirudi latinezko Stéphan hitz-errotik har-tua dagoela, hots, *Estebane*, *Estebae*, *Estebe*. Zuberoako izen herrikoia, Pei-lleknek dioenez. Donestehiri (done-estebe-hiri), Nafarroa behereko herri-izena. “Jundane Estebe Martira, Oihergiko patrua” (“Khantuz, khanta, khantore”, 147 p.). Estebenea, Irungo baseria; Estebanea, Sarako deitura; Estebetxe, Sarako deitura (L. Eleizalde: Listas alfabéticas, RIEV-XIX, 1928, 86 p.). “Saul lehenbizikotarik zen Yaun-doni Esteberen heriotzea galdegia zuena” (Bernat Larregi, Testamentu zaharraren eta berriaren historioa, II tomoa, 319 p., Hordago).

ESTEBEKO (Estebanito): Estebekorena, Urdazubiko deitura (Excomu-nión por el Abad de Urdax, Fontes, 1972, 12 lum., 372 p.).

EZTEBE (Esteban): Doneztebe (Santesteban), Nafarroako herria. Doneztebe, Zuberoa-Arbaillako hirixka. “Jaun-done Eztebe”, Zuberoako

pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 15 p.). “Yaun-doni Eztebe, lehen-biziko Martira” (Bernat Larregi, II-gn, tomoa, 336 p.).

FABIENE (Fabien/Fabián): “San Fabiene eta San Sebastiene” (Bernat Larregi, Testamento zahar eta berriko historioa, II-gn. tomoa, 353 p.).

FRANTZISKUA/PRANTZISKUA (el Francisco): “Ni N. eure borondate gustirean boto egiten dot / eta prometietan dot/ Jaingoikoari / ta Andra-/done M(aria) birjineari eta Sant Fra(nzi)skuari eta / zeruku sanktu eta sankta kustiai ta zuri aita goardetako erregeela / terzera Sant Franziskuaren ordeakoa penitentziakoa aita sanktu Nikolao / laugarrenaren emona eta otorgadua eta aita santu Sist lau / garrenaren aprobadua ta konfirmadua, bizi izaiteko obedenzian / eta pobrezan eta kastidadean” (L. Mitxelena, T. A. V., 143 p.).

L. Mitxelenak berriz honela dio (“Euskera” IV, 1959, *Sobre -a en nombres vascos de persona*, 5-10 paisak):

“Fray Ignacio Omaechevarría señaló por primera vez, que yo sepa, la expresión *aita sant Franciscuaren ordeacoa* en una fórmula de profesión de las Beatas de la Orden Tercera que data de la primera mitad del siglo XVI (B. R. S. B. A. P., 4, 1948, 310 p.). Y añadía un dato importante de la conservación de este arcaísmo: “Personas de Munitibar, de hace 50 años, decían de San Francisco y de él solamente: *Aita San Franziskua*: El Patriarca San Francisco”.

“Don Manuel de Lecuona —jarraitzen du Mitxelenak— gran conocedor de nuestra poesía popular, aportó valiosas precisiones. En un cantar sobre la vida de Santa Clara, sin duda antiguo, que se sigue cantando en Ondarroa, aparecen *Aita San Prantziskua y Jesusa bizijsa*. Además, para la extensión del fenómeno a Guipúzcoa, es importante lo que escribe al final de su nota: “Con respecto a la forma del nombre *Frantziskua*, aún conocemos nosotros en Lasarte persona, anciana de cerca de 80 años, que, corrientemente, a los “14 Padrenuestros de San Francisco” llama “Aita San Prantziskuaren Aitaguriak”.

Eta aurreraxeago honela dio Mitxelenak: “En las notas de Fr. J. Ruiz de Larrinaga a las cartas del P. Uriarte al príncipe Bonaparte, figura el título de una poesía de D. Eusebio M.^a de Azkue, donde dice: *Bermeoco Aita San Franciscuaren Colegiyoco Misionistai*”.

Manuel Lekuona apez jaun agurgarriak beste erakusgarri hau ematen digu “Santa Klaren kantak” deritzatenetan: *Aita San Prantziskua / Padri-no harturik, / Esposa izan ziñan / Ait’amen ixilik.* (M. Lekuona, Literatura Oral Vasca, Idaz-lan guztiak, 471 p.).

HARITZE: Ikus ARITZE/HARITZE.

IAKOBE/JAKOBE (Jacob(o)/Santiago): Sancho Iakobe (Lakarra: FLV, 167 p., 17 lum., 1974, “Documentos de Irache (1283) referente a Cirauqui”); Iakobe, idem. idem., 176 p.; Garcia Iakobe, idem. idem., 178 p.

“Ezagutu zuenean laster hiltzekoa zela, galdegin zuioten bere anaiei, *Jakobe*, bere aitak hari berari galdeturikako grazia bera: erran nahi da, otohoitztu zituela hel-arazteaz haren hezurrak Chanaango lurretarat” (Bernat Larregi, T. Z. eta B. H., Igo. Tomoa, 110 p.). Badirudi izenok latinezko “*Iacob*” (*Jacob*) izenetik hartuak daudela eta ez “*Iacobus*”etik (*Jacobo/Santiago*).

JAKUA (*Jacob(o)/Santiago*): “Jaundone *Jakua* apostoluak dioen bezala” (Martin Duhalde, Meditacioneac, 56 p.). “Jaundone Petrik eta Jaundone Jakuak” (Idem. 368 p.). “Jaundone Jakuak dioena” (Idem. 395 p.). “Hordago” edizioaz ari naiz.

JAKUE (*Jacob(o)/Santiago*): “sanctum Jacobum (vocant) *Jaona domne Jakue*” (Aimery Picaud), Mitxelenak aipatua (Apellidos Vascos, 110 p.); María *Jakue Zuazola*, 1560 urtea (Luis Murugarren, Nomenclator onomástico vasco, B. R. S. B. A. P. 1977, 1-2, 249 p.); *Jaun-done Jakue Nagusia*, Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Beltxitina, 15 p.). Peillenek dioenez, orain Jakue izena galdurik da Zuberoan eta halaber ez dira ezagunak lehenagoko *Jakobe* eta *Jakube* aldakerak.

JAZINTOTXUA: “Baña *Jazintotxua* / zeuan enpeñaturik, / Durangon bear zala / asi lenengotik...”

“Entxunik Markiñarrak / *Jazintotxuari*, / utzi zioten laister / diferentzia...” (J. M. Leizaola, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura, V Tomoa, 144 p.). Gaztelaniaz: el Jacintillo.

JESUSA (el Jesús): “*Jesusa, Jaundone Periagaz*” (L. Mitxelena: *Textos Arcáicos Vascos*, 144 p.).

J. M. Satrustegik “Romance vasco de la doncella guerrera” irazlanean (Fontes, 10 lum., Enero-Abril 1972, 79-81 paiaik) honako bertso hau ezartzen du: Moja sartzera noa / Komentu batera, / *Jesusaren* esposa / Betiko izatera.

Manuel Lekuona jaunak beste ahapaldi hau ematen digu: Eskuan darau-zun / Gauzaren andija / Kustorijo batian / **JESUSA** bizija (Santa Klararen kantak, Literatura Oral vasca, 471 p., Idaz-lan guztiak). Pedro Ignacio Barrutiak “Gabonetako ikuskizuna”n: “Laster jaioko da *Jesusa niganik*” (Teatro zaarra, Auspoa, 23 p.). Eta beste ahapaldi hau: Amorioak dakar zerutik / *Jesusa* zuen artera, / Bekatuaren poderiotik / Guztioik ataratza (Teatro zaarra, Auspoa, 26 p.).

Jesusa izena dela-eta, honela dio Mitxelenak (sobre -a en nombres vascos de persona, **Euskera** IV, 1959, 6 p.): “Ultimamente ha vuelto sobre la cuestión D. Isaac López Mendizábal. Señala con razón que *Jesusaren beraren biotz maitetsuari* se encuentra en la misma portada de la conocida obra en verso *Jesu-Christo gure Jaunaren Passioa*, atribuida al jesuita vizcaíno P. Agustín Basterrechea (Bilbao, 1777). “En Tolosa —añade— era muy corriente cantar por Navidad aún hace pocos años, llevando por las calles los *nacimientos*, en esta forma: *Jesusaren jaiotza / eskutan artuta / ez gerade etorri / bidea galdua*”.

JOANE/JUANE (Juan): “Aren urrengo anaje (anaje) lastanak, Antso, *Joane, Onsalu*” (Escrituras de Andramendi, L. Mitxelena: T. A. V. 160 p.). Bizkaian oso herrikoi izan dela dirudi aresti arte, “Kirikiño”k bere “Abarrak” ipuin liburuan baitarabil. “Zerutar bat”: nire biotzeko *Juane*.

“Platica lelengoa, oorean (ohetik) xayguiteco goxean, ta ari dagocasan (dagozkion) gausena, esatari, Peru Xauna derechan (deritzan) vategas, vere osseyñ Alonssoen artean ta bere adisquide derechala (deritzala) *Joane* xauna; eta asso bategas (atso batekin).”

(Diálogos de Micoleta. “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”. Ibon Saratsola, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, XVII, 1983, 187 paia).

F. Idoate: “Toponómastica del valle de Roncal”: Johane Beltza, Erronkari hirian; Johane Boronte, Garden (Erronkari). (A. Irigaraiek komentatua, B. R. S. B. A. P.-en, 1977, 3-4, 589 p.).

“Jaun-done Joāne Bataiatzailea”, Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 15 p.). “Johane Periz de Laskoz”, 1366, Etxarri-Aranatz (A. Irigoyen, Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca, Euskera, 1977, 600 p.).

JOHAÑE/JUHAÑE (Juan): Zuberoako forma herrikoia, Txomin Peillenek dio: “*Juanes* eta *Johañe*: biak erabiltzen dira; lehena Basabürrian doto-reago da. Haurrekin: *Nuñes* erabiltzen da.”

JOSEPE/JOXEPE (Joseph/José): hain herrikoia den izen honek ez luke adigarri beharrik. Hala ere, horra batzuk: “Pello-Joxepe tabernan dela” herri kantu zoragarria. Eta “Josepe ekartzazu / sortatxo bat egur / haurra hotzez dago-ta / berotu dezagun”, Gabon-kanta. “Jesus, Maria ta Josepe, lagundu egidazue egun onetan” (Fr. P. A. Añibarro, Esku-liburua, 5 p. “Bi eta iru bider / Joxepek jotzen du / Gizonak bentanara / Nekez irteten du” (M. Lekuona, Idazlan guztiak, Gabon misterioak Euskalerrian, 162 p., II tomoa). “Josepe”, Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 16 p.). “Birjina Ama Joseperekin” (Euskera, 1977, 1-2, 247 p.). “Josepe de Sara”, 1606 (Murugarren, Nomenclator onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1977, 1-2, 247 p.). “Jaun done Josepe zure senarraren izenean” (Liburu-ederra, 177 p., Kardaberaz/Duvoisin, Baiona, 1856). “Jakoben semeak (semeek) ezin era-man zuen (zuten) eren anai Joseperen ongia” (Juan Antonio Ubillos, Christau Dotriñ Berri-Ecarlea, 21 p., Tolosa, 1875. “Eba ederra Joseperekin / Belenen degu topatu” (M. Lekuona, Idazlan guztiak I. Gabon kantak, 439 p.). “Joxepe gizon ona / Arotza zera zu” (Idem., Olentzero eguneko kantak, 442 p.). “Josepek dirautzo / Maria Birjiniari” (Idem., Marijesiak, 452 p.).

LAZAROA (el Lázaro): “Abrats gaixtoa eta Lazaroa” (Leizarraga, Testamentu Berria, S. Luc. XVI Kap., 138 p.).

LEONE (Léon/León): “Othoitz egin zuten Leone hamairugarrenarentzat” (Arbelbide, “Erlisionea”, 180 p.). Autore honek non-nahi darabil Leone Aita Saindu izena.

LOPEIZA/LOPIZA (el López): Dirudienez pontizen bezala ageri zaigu Murugarrenen izen lerrokadan eta ez deitura bezala. Lopiza de Lasalde (1567): Lopeiza (1573) (Luis Murugarren, Nomenclátor Onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977, 248 p.).

MARTIA (el Martín) “Yaun-doni Martia” (Bernat Larregi: Testamen-
tu Zaharraren eta Berriaren Historioa, II tom., 365 p. Bestalde, denok ezagu-
na dugu Martiarena (Martia-reна) deitura.

MARTIE (Martin): “Jandone Martie Erroya” = *Sanctus Martinus cor-
vus*. Martin de Arles Andosillakoa, Lyon, 1510. J. M. Satrustegi: Anuario
Julio Urquijo, XII-XIII, 1978/1979. Contribución al fondo de textos anti-
guos vascos, p. 229. “Martie Marra” (Mitxelena: T. A. V., 34 p.). “Martie de
Serna (varón), 1565 (L. Murugarren: Nomenclátor onomástico vasco, B. R.
S. B. A. P., 1-2. 248 p.). “Martiarena” deitura hemendik ere badatorke, azken
“-e” “-a” bihurtuz.

MARTINE (Martín): “Iondoni Martine” (Ithurry, Grammaire Basque,
410 p.). Martine-tik sortua da Martie, bokal arteko -n- galduz.

MATXIA (el Martín, amultsuki): Matxiarena deitura, hots, Matxia-
rena. Matxiandiarena deitura ere Matxia-tik etor daiteke. Baino biok, delako
“Matxie” batetik ere etor daitezke.

MATXIN (Martin: amultsuki edo adiskideki): Matxin de Lausagarreta,
1499 (L. Murugarren, Nomenclátor..., B. R. S. B. A. P., 1977, 1-2, 249 p.).
Matxin Jauregizar: “Protonotario de los Reyes Juan e Cathelina” (F. Idoate/A. Irigarai: Toponómastica del valle de Roncal, B. R. S. B. A. P., 1977,
3-4, 589 p.). Matxin de Arzu, Hondarribiako kalea. Deiturak edo tokizena: Matxinbarrena, Matxinbenta, Matxinandiarena, Matxinea. Bada ere kantu
bat hasten dena: “Ai zer gizon zurra dan Matxitxo gurea...”, eta esaera bat
honela dioena: “Egoki Matxin-i mantua, ta ez afari gertua” (Refranes y Sen-
tencias de 1596, n.º 160).

MATXINIKO (Matxin diminutivo): Matxiniko de Galdona (varón),
1555 (L. Murugarren, Nomenclátor..., B. R. S. B. A. P., 1977, 1-2, 249 p.).

MIGELEIZA: pontizen bezala ageri da 1509-gn. urtean. (L. Muruga-
rren: Nomenclátor onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977, 249 p.).

MIKELE (Miguel): Mikele Basoko (Mitxelena: Ap. Vasc.); Mikele
Ostatuko (Mitxel., Ap. Vasc.); Iaun Mikele Gomeza, Uterga, 1226 (Lakarra:
Vasconia Medieval, 49 p.); Mikele Zuria, Arakil, 1257 (Lakarra, Vasc. Med.,
50 p.); Mikele Gurtea, Olaindain-Girgillano, 1246 (Lak., V. M. 38 p.); Mikele
Belza (Beltza), Mañeru, 1213 (Lak., V. M., 49 p.); Mikele Urdina (Libro
Rubro, Iranzu —Lak., V. M., 43 p.); “Eneco Arceiz, filius Garcie Ortiz done
Miqueleco”, Mañeru, 1229 (Mitxelena., Text. Arc. vasc., 36 p., Apellidos
Vascos, 79 p.). Deiturak: Mikelerena Mikeleperitzena, Mikelarena (Mikelere-
na?), Mikelajauregi (Mikelejauregi?), Mikeleiz. Mitxelenak Garzia Mikeleiz
dakar (T. A. V., 35 p.).

MIKELETO (Miguelin): Mikeletorena, deitura (Mitx., T. A. V., 35 p.).

MITXEL (Miguel): *Mitxel*, 1366, “en la cuenca de Pamplona” (A. Irigoyen: “Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca”, (Euskera, 1977, 599 p.). “Mikel” en ordezkoa amultsuki.

MITXELE (Miguel): Michele Aioroyz (Mitxelena, T. A. V., 34 p.); Michele de Loydi, 1551 (Murugarren, B. R. S. B. A. P., 1977, Nomenclátor onomástico vasco, 249 p.). “*Michele eta haren aingeruak bataillatzen ziraden dragoinaren kontra*” (Leizaraga, Apocalypsea, 445 p.). Seguru aski hemen “Mixele” irakurri behar da, Bidasoz bestekoa baita. “Mitxele”, “Mikele” ren ordezkoa da, amultsuki erabilirik.

MITXELKO (Miguelin): Bortzerreria-Beran, 1366. (A. Irigoyen: “Algunas consideraciones sobre...”, Euskera, 1977, 599 p.). Diminutiboa.

MITXELTO (Miguelin): “Mitxeltorena”, Nafarroako deitura.

ONSALO/ONZALO (Gonzalo): Gaur deiturak (L. Mitxelena: Apellidos Vascos, 140 p.).

ONSALU/ONZALU (Gonzalo): Onsalu Onsaluch (= Gonzalo González): burua izanik Onzalu Onzalutx (burua ysanic Onsalu Onsaluch). Badirudi “s”ok “z” irakurri behar direla. “Anso, Joane, Onsalu” (Sancho, Juan, Gonzalo), hots “Sancho y Joan y Gonça(lo)”, itzulpenak dioenez. (L. Mitxelena: T. A. V., Escrituras de Andramendi, 159/160 pk. Badirudi *Antso, Joane, Onzalu* dela irakurkizunik bidezkoena.

ORTI (Fortunio, Fortuño, Ortúñu): Ortí Arotza, Artajona (Lakarra, Vasconia Medieval, 46 p.); Ortí Erroko, Ortí Mendigorriko, Ortí Belza (Beltza), Ortí Eiulduna: Artajona (Lakarra, Vasc. Med., 47 p.); Iaun Ortí Ataondoko, Iaun Ortí Belza (Beltza), Iaun Ortí de Loza, Iaun Ortí Ortiz: Larraga (Lakarra, V. M., 49 p.); Iratxe: Ortí Arregurengo, Ortí Erro, Ortí Lorka, Ortí Ordinssó, Sandor Ortirena, 1283 (Lakarra, V. M., 39 p.); Ortí Zuria de Lizassoain (Becerro antiguo de Leire, R. Ciérvide, Fontes n.º 26, 1977, 283 p.); Iaun Ortí Sudurra, Uterga, 1221 (Lakarra, V. M., 49 p.) Sandor Ortirena, Iratxe 1283 (Lakarra, Fontes, 167 p., 1974); Ortí Iriarteko, Iratxe (Idem., idem., 175 p.); Ortí Gutia (= Txipia), Tajonar, 1107 (Becerro Leire, Lakarra: V. M., 32 p.); Ortí Mutila, Orreaga 1284 (Lakarra, V. M., 45 p.); Ortí Elizarko, Guece 1229, eta Ortí Maineruko, Mañeru 1230 (Lakarra, V. M., 50 p.). Textos Arcaicos Vascos (L. Mitxelena): Ortí Sanoiz Ostatuko, 33 p.; Ortí Zalduna, 33 p.; Ortí Zuarondoko, 34 p.; Ortí Enekoiz, 34 p.; Ortí Bela, 34 p.; Ortí Usoa, 34 p.; Ortí Arabarra, 34 p.; Ortí Mutila, 37 p. Apellidos Vascos (Mitxelena): “Lope Iaun Ortire(n) semea” (147 p.); Ortí Usadorreko, Iratxe 1226 (161 p.).

PANTXOA (el Francisco?): “Peio eta Pantxo”, gaurko lapurtar euskal kantariak. Ez dakit izen hau Bidasoz bestaldean zabaldua dagoen ala ez. Gure artean, amultsuki, *Pantxo* erabili ohi da.

PAULE (Paul/Paulo/Pablo): Zuberotarrez *Paul = Phaule* (Louis Gèze: (*Eléments de Grammaire Basque*, 41 p.). Idem., 21 p.: Phauletan konfidantxa badüt. Idem. 21 p.: Phauen gañen da haurra. “Kaniko eta Belxitinan” ere ageri da, hots Jakes Oihenarten pasturaleko ahapaldi batean: Amoina egitiak eztü / Sekula ihur praubetü; / Jondane Phaulek erraiten dü; / Ezta behar dü-datü.

PEDROA (el Pedro): bada “Pedroarena” deitura franko zabaldua Nafarroan (ikus, esaterako, “Umeen deia” aldizkariaren bilduma liburua, 499 p.).

PERIA (el Pedro): “Jesusa, Iaundone Periagaz (con San Pedro)”. (Mitxelena: T. A. V., 144 p.).

PERUA (el Pedro): *Peruarena*, deitura zabaldua. Hala ere “Perurena” zabalduago.

PETRIA (El Pedro): Bada “Petriarena” deitura, Ernanin bederen. Hala ere “Petrireña” askoz zabalduago dago.

PIERRA (Pierre/Pedro): Zuberoan oso zabaldua, “baina Pierra bezin hedatuak dira Pheti(r)i eta Phetti(r)i txipigarria eta Pette ere bai”, dio Txomin Peillenek. Gainera, Mitxelenak dioenez, frantsez -e-ren ordez -a darabilten euskal-pontizenok ez dira ez zaharrak eta ez jatorrak (no representa nada antiguo ni castizo en vasco).

PILATE (Pilate/Pilatos): Ilki zedin bada Pilate hetara kanpora (Leizaraga, *Testamentu Berria*, 200 p., 29 berseta, Hordago). Sar zedin bada berriz Pretoriora Pilate (Idem., 200 p., 33 berseta). Handik harat bazabilan Pilate, hura largatu nahiz (Idem. 201 p., 12 berseta).

SALBATORE (Salvador): Salbatore auzoa Beasainen. Salbatore ermita Nafarroa behereko Garazin. Kantuak honela dio: Salbatore gora da Garazi aldian; Ni ere han nündüzün igaran astian, / Debozione gabe bai senthoralian, / Ene gazte lagünak han beitziradian. Euskaraz Igokunde jaiari esaten zaio horrela. Osorik *Jaun done Salbatore*. Barkoxeko elizari ere Salbatore deritza.

SATANASA (Satanás): “Naasteko dantzari esaten deutsee Eleizako Santubak..., diabruaren txirrintolia, Satanasaren saria, demoninuen jokua (Fray Bartolomé de Santa Teresa, *Euskal Errjetako olgeeta ta dantzeen neurizko gatz ozpinduba*, 86 p.). Aitorru beharrean gara hau ez dela pontizena inondik ere, baina bai izen propioa.

SEBASTIENE (Sébastien/Sebastián): San Fabiene eta San Sebastiene (Bernat Larregi, *Testamentu zahar eta berriaren historioa*, 353 p.).

TARTARUA (el Tártaro): “Hi hor eta ni hemen” beti oyuka eta Tartarua beti segitzen dio.

Han itotzen da Tartarua (Fontes Linguae Vasconum, 1975, 20 lum., 276 p.). A. Irigaray/Charles Videgain: *Leyendas vascas de W. Webster*.

TXANDRES: Andrés (amultsuki). Azkuerentzat: José Andrés, Bizkaian (“Tx” bokal aurretik).

TXANTON: Anton (amultsuki). Azkuerentzat: José Antonio, Bizkaian. Txanton Piperi opera ezaguna (“Tx” bokal aurretik).

TXANTXO (Juantxo?): Chancho de Ybarra (1717). Luis Murugarren: Nomenclátor onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977, 246 p.

TXARIAKO (Ciriaco?): Chariaco de Galardi (1549). L. Murugarren, idem., idem., 246 p.

TXARTIN (Martín?): Chartin de Marquina (varón), 1503. L. Murugarren, aipatu lana, 246 p.

TXARTINA (Martina?): Chartina de Çaldua (Zaldua), 1562. Luis Murugarren, aipatu lana, 246 p.

TXATXI (Graxi = Engracia?): Chachi de Mendiaras (1548). Badakigu Zuberoan Graxi-ri (Engracia), Xaxi esaten zaiola amultsuki. Hauxe da nire itzulpenaren arrazoi bakarra (L. Murugarren, aip. lana, 246 p.).

TXERGORI (Gregorio?): bar baten izena Plaentxian (Soraluze).

TXERU (Peru, amultsuki): “Txeru kartzelan dago” kanta zaharra.

TXERRAN (Errando/Ernando/Fernando): amultsuki, adiskideki edo diminutibo bezala erabilia. Mitxelenak, Apellidos Vascos-en (99 p.) honela dio: “El dim. *Cherran* (*Cherran de Gamboa* fue muerto en una pelea de banderizos cerca de Bilbao, en 1440), sirve hoy para designar al “diablo” en una zona del dialecto vizcaino y en guip. de Iciar: *txarran, txarren*. Hay otras denominaciones del diablo humorísticas, al menos en su origen, como *Matxin, Patxi*, etc.”. Gogora dezagun Apaolatzaren “*Patxiko Tixerren*”, Truebañen “*El Judas de la Casa*” itzultzeko.

TXOME (amultsuki): Tomé? Chome de Vidaurre (1499). L. Murugarren: Nomenclátor..., B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977.

TXOMENTXO: Chomencho de Miramontes (doncella, 1566). L. Murugarren: “*Txome*”ren ondoan. “Dominica”ren diminutiboa ote?

TXOMIN (Domiku edo Domingo, amultsuki): Chomin González (1503); Chomincho de Zavala (1576). L. Murugarren, aipatu lanean eta paian.

TXOPE (Lope, amultsuki): *Txoperena* deitura ezaguna da. “*Txopekua*” (*Txope-koa*), Oñatiako jatetxe ezaguna. ”*Txpenea*”, Azpirozko (N) baserria. Daitekeena: *Txopeitia* (*Txope-beitia*?). *Txopitea*, *Txopeitiaren* metatesis izan daiteke.

TXOPEIZA (Lopeiza, amultsuki, Txope-iz-a): nahiz eta gaztelaniako López edo “el López”en kide izan, pontizen bezala ageri zaigu, antza danez: *Chopeyza de Iriarte* (1562). Luis Murugarren, aipatu lanean. 246 paia.

TXOPINO (Domiku/Domingo, amultsuki). Erdi Garaian oso zabaldua. Txopino de Anuzibai, Bizkaia.

TXORDON (Ordoño): Autso Txordon artz orri ta nik iñes daida (ten Ordoño a esse Osso y yo haré huyda (Refranes y Sentencias de 1596, n.^º 422) (“Tx” bokal aurretik).

TXURDINA (Saturnina?): Churdina de La Parada (1572). (Murugaren, aipatu lanean eta aldizkarian, 246 p.).

Badira Murugarrenen lerrokadan beste izen batzuk “tx”kin hasten direnak, baina, ezin antzeman zaienak zein izen izan daitezkeen, hala nola Charria, Chara (Clara?), Charimartiz eta Chata (hau gaztelaniazko chato/chata ez bada). Charia, Alfonso Irigoienen ustez: Maria.

UNTXALO: gaur deitura, baina noizpait “Gonzalo” izan bide zen.

URTI (Fortunio, Fortuño, Ortuño): Mitxelenak honela dio “Apellidos Vascos”en, 142 p.: “La equivalencia *Orti* = *Fortunius* ha sido siempre, a lo que se ve, un secreto a voces entre historiadores. Garibay, RIEV 4 (1910), 405 s., escribe: “Es esto tan cierto, que oy dia para nombrar a uno Ortuño o Fortuño de Mendoza, han de decir en la deuida congruidad de la Lengua Bascongada *Hurti Mendozako*, y para llamar a otro Ortuño de Guebara diran *Hurti Guebaraco*, porque Hurti es Ortuño...”. Honeraino Mitxelenak Gariabien ahoz. Bada karrika bat Usurbilen (G) Urtinea, Urti-enea izan daitekeena. Eta Urtiain/Urtain ez ote datoaz “Urti” tik? Baietz esango nuke.

URTUNIO (Fortunio): Urtunio de Morasteriovide (1503). L. Murugaren, aipatu lanean eta aldizkarian, 250 p.

YAUNI (Juan/Joane): “Arte harten Magdalenak bathu (aurkitu) zituen Yaun-doni Petri eta Yaun-doni Yauni” (Bernat Larregi, Testamentu zaharraen eta berriaren historioa, II tom., 286 p. (e ordez, i osatzen).

ZATHORDINA (Saturnino/Saturnin): “Çathornina. S. Sernin” (Sylvain Pouvreau/Julien Vinson: Les petits oeuvres basques de S. P., 9 p., Hordago, Donostia).

OHARRA: Lan honen lehendabiziko probak zuzenduta gero ALFONSA izenaren adigarriok bildu ditut Jusef Egiategiren “Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia” liburutik: “Alfonsa gaztiak, Alfonsa Handiren primia” (primua, oinordekooa), 179 p.; “Jakin nahiz ere zerbait Alfonsa Handiaz”, 180 p.; “Othoitü nian non zen Errege Alfonsa erran leizadan”, 180 p. (Euskaltzaindia, Bilbao, 1983).

Esan dugu, Bizkaian bederen, izen herrikoia izan dela JOANE/JUANE arresti arte, Kirikiñok bere “Abarrak” liburuan darabilen. Horra, bada, joan den mendeko Dámaso M.^a Bernaolakoak, behin behintzat badarabil bere “Pasiño Santuaren contaera” delakoan, hots, 7.-gn. orrialdean: “Zucendu zen bere icasla Pedro eta Joane gana eta esan eutsen”: Baino liburu hau ez zen argitaratu 1905 arte, Durangon, Roberto Soloaga-ren Moldeztegian. ERECHIA izeneko sarrera atalean, liburua argitaratzeko baimena emanaz, “Bitoriac Apezburutzaco Ordezcari” delakoak honela izenpetzen du: “Bitorian Aberillaren, 6 garrenean eta 1905 garren urtean. - Joane R. Cenarruzabeiticoa”. Beraz, 1905 garren urtean bizi-bizirik zegoen Joane izaña Bizkaian. Eta orain galdetzen dut: ez ote dago oraindik bizirik zenbait baserritan?